

15/12

irizpena

Euskadiko Kultura Ondareari buruzko
Lege Aurreproiektuari Buruzkoa

Bilbon, 2012ko uztailaren 18an



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea



*i*rizpena **15/12**

I.- SARRERA

2012ko ekainaren 20an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Kultura Sailaren idazki bat sartu zen, “*Euskal Autonomia Erkidegoko Kultur Ondareari buruzko Legea*”ren aurreproiektuaren inguru txostena eskatuz, betiere Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Kontseiluari buruzko maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1. artikulua ezarritakoarekin bat etorriz.

Araua gaia honakoa da: “*euskal kultur ondarearen defentsa, aberastasuna, babesa eta balioespina, bai eta haren zabalkundea eta sustapena ere, Autonomi Estatutuak (1. artikulua)... Autonomia Erkidegoari emandako eskumen eskusiboari jarraituz*”; hori guztia arau berri baten premiarekin testuinguruan egin da, euskal kultur ondarearen oraingo erregulazioa (Euskal Autonomia Erkidegoko Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea) ondare honek dituen egungo zirkunstantzietara egokitzeko, betiere orain arteko esperientzia kontuan harturik.

Berehala agiriaren kopia igorri zitzaizkien Batzordeko bilkurako kide guztiei, euren proposamenak eta iritzia bidal zitzaizkien eta horiek beharrezko lan batzordeari helaraz zekizkien, betiere Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Kontseiluaren Jardunbide Arautegiak ezarritakoaren arabera. 2012ko uztailaren 9an garapen batzordea bildu zen eta, hartutako erabakietatik abiatuz, irizpen proiektu hau eman zen, uztailaren 18ko Osoko Bilkurari igortzeko; aipatutako irizpena aho batez onetsia izan zen bilkuran.

II.- EDUKIAREN LABURPENA

Euskal Autonomia Erkidegoko Kultur Ondareari buruzko Legearen aurreproiektuak azalpen zatia dauka, 5 kapitulutan multzokatutako 72 artikulua, 2 xedapen gehigarri, 2 xedapen iragankor, xedapen indargabetzailea eta 2 azken xedapen. Laburbilduz, haren edukia honako hau da:

AZALPEN ZATIA

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Gaia
2. artikulua.- Aplikazio eremua
3. artikulua.- Kultur ondare higigarria eta higiezina
4. artikulua.- Euskal kultur ondare immateriala
5. artikulua.- Babes mailak
6. artikulua.- Kultur ondasunen kategoriak
7. artikulua.- Ekintza publikoa
8. artikulua.- Administrazio eskudunak
9. artikulua.- Kultur ondarearen zentroa
10. artikulua.- Kontsulta organoak
11. Artikulua.- Euskal kultur ondarea defendatzeko, babesteko eta sustatzeko lankidetz

II. KAPITULUA. BABES PROZEDURA ETA ARAUBIDE ERKIDEA ETA ZEHATZA

1. SEKZIOA.- Kalifikatutako eta inbentarioan sartutako ondasunak babesteko prozedura
12. artikulua.- Kultur intereseko ondasunen kalifikazioari buruzko espedienteen prozedura erkidea eta horiek kultur ondarearen inbentario orokorrean sartzea
 13. artikulua.- Kalifikatutako ondasun baten adierazpen prozedurari dagozkion zehaztapenak
 14. artikulua.- Izendapen orokorrerako prozedura
 15. artikulua.- Ondasunak euskal kultur ondarearen inbentario orokorrean sartzeko prozedurari dagozkion zehaztapenak
 16. artikulua.- Jabetza erregistroan inskribatzea
2. SEKZIOA.- Babes araubide erkidea
17. artikulua.- Aplikazio eremua
 18. artikulua.- Kontserbazio betebeharra
 19. artikulua.- Eremu urbanistikoan esku hartzeko baimenaren alde

aurretiko manuzko baimenak

- 20. artikulua.- Betearazpen subsidiarioa eta isun hertsitzaileak
- 21. artikulua.- Kalifikatutako eta inbentarioan sartutako ondasunen desjabetzea
- 22. artikulua.- Babes araubidearen behin-behineko aplikazioa eta lizentzien etendura
- 23. artikulua.- Informazioa
- 24. artikulua.- Kalifikatutako eta inbentarioan sartutako titularitate publikoko ondasunen izaera

3. SEKZIOA.- Ondasun higiezinak

- 25. artikulua.- Kontserbazio betebeharrak
- 26. artikulua.- Babestutako kultur ondasunen ingurunea
- 27. artikulua.- Lurralde antolamendurako lanabesak eta hirigintza plan gintzak eta ingurumen eraginari buruzko ebaluazioak.
- 28. artikulua.- Aurri adierazpena
- 29. artikulua.- Babestutako ondasunak eraisteko bidezkoetasunari buruzko foru ebazpena

4. SEKZIOA. Ondasun higigarriak

- 30. artikulua.- Babes araubidea
- 31. artikulua.- Kultur ondasunen transakzioei buruzko erregistro liburua

5. SEKZIOA.- Ondare immateriala

- 32. artikulua.- Babes araubidea

6. SEKZIOA. Ondare arkeologikoa

- 33. artikulua.- Definizioa
- 34. artikulua.- Jarduera arkeologikoak eta paleontologikoak
- 35. artikulua.- Jarduera arkeologiko eta paleontologikoen baimena
- 36. artikulua.- Baimenduta ez dauden jarduera arkeologiko eta paleontologikoak
- 37. artikulua.- Interes arkeologiko eta paleontologikoko ondasunen aurkituntzak
- 38. artikulua.- Interes arkeologikoko ondasunak aurkitzeagatiko saria
- 39. artikulua.- Gune arkeologikoetan esku hartzeko proiektuak

- 40. artikulua.- Manuzko komunikazioak jarduera arkeologiko eta paleontologikoetan eta materialak biltzeko tokia zehaztea
- 41. artikulua.- Interes arkeologiko eta paleontologikoko ondasunen bilketa
- 42. artikulua.- Baimendutako jarduera arkeologiko eta paleontologikoei buruzko memoria
- 43. artikulua.- Material arkeologiko eta paleontologikoak ikusgai jartzea
- 44. artikulua.- Presuntzio arkeologikoko eremuak
- 45. artikulua.- Foru aldundien zuzeneko esku-hartzeak

III. KAPITULUA. KULTUR ONDASUNEN BABES MAILAK

15/12j

1. SEKZIOA. Kalifikatutako kultur ondasunak

- 46. artikulua.- Kalifikazioaren edukia
- 47. artikulua.- Kalifikatutako ondasunen babes araubidea
- 48. artikulua.- Kalifikatutako ondasun higiezinetan esku hartzeko irizpideak
- 49. artikulua.- Kalifikatutako ondasun higigarrien esku-hartzeak
- 50. artikulua.- Kalifikatutako kultur ondasunak erregistroan inskribatzea
- 51. artikulua.- Lehenetsunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideak
- 52. artikulua.- Eskritura publikoko eta erregistro inskripzioko formalizazioa

2. SEKZIOA. Inbentarioan sartutako ondasunak

- 53. artikulua.- Euskal kultur ondarearen inbentario orokorraren inskripzio aginduaren edukia
- 54. artikulua.- Inbentarioan sartutako ondasunen babes araubidea
- 55. artikulua.- Inbentarioan sartutako ondasun higiezinetan esku hartzeko irizpideak
- 56. artikulua.- Inbentarioan sartutako ondasun higigarrietako esku-hartzeak

IV. KAPITULUA. SUSTAPEN NEURRIAK

- 57. artikulua.- Aholkularitza tekniko eta laguntzen emakida
- 58. artikulua.- Zerga onurak

59. artikulua.- Zorren konpentsazioa

60. artikulua.- Aurrekontu erreserba obra publikoetan, kultur ondasunera zuzenduta

V. KAPITULUA. ZIGOR ARAUBIDEA

1. SEKZIOA.- Arau hausteak

61. artikulua.- Ikuskapena eta ikerketa prozedura hastea

62. artikulua.- Arau-hausteari buruzko kontzeptua

63. artikulua.- Arau-hauste arinak

64. artikulua.- Arau-hauste larriak

65. artikulua.- Arau-hauste oso larriak

66. artikulua.- Arau-hausteen arduradunak

67. artikulua.- Arau-hausteen preskripzioa

2. SEKZIOA.- Zigorrak

68. artikulua.- Zigor prozedura

69. artikulua.- Zigorren zenbatekoa

70. artikulua.- Gaitz-kalteak konpontzeko eskakizuna

71. artikulua.- Administrazio eskudunak

72. artikulua.- Zigorren preskripzioa

15/12j

XEDAPEN GEHIGARRIAK

XEDAPEN IRAGANKORRAK

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

AZKEN XEDAPENAK

AZALPEN ZATIA

Euskal kultur ondarearen defentsa, aberastasun, hedapen eta sustapena bermatzeko asmoz eta kulturaren arloan EAEk daukan eskumen eskusiboaren markoan, Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeak beharrezko oinarri juridikoa ezartzen du euskal kultur ondarea babesteko araubideari dagokionez.

Onetsi zenez geroztik igaro den denbora kontuan hartzen bada, behar-beharrezkoa da legezko arau berria ezartzea, egungo zirkunstantziak eta eskuratutako esperientzia gogoan izanik, ondare horrek behar dituen babes eskakizun eta parametroetara egokitzeko. Arau berria kultur ondarearen defentsan izandako planteamendu berrien bilakaeraren arabera prestatu da, 7/1990 Legeak ezarritako babes sistema hobetzeko premian oinarrituz; horretarako, aipatutako legearen funtsezko erreforma planteatzen da.

Lege hau gai honen inguruko eskumen autonomikoaren itzalpean ematen da, Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako administrazioen eskumenak errespetatuz; horien aintzespenari ere eusten zaio, lege honen ondorioetarako administrazio eskudunak diren aldetik.

15/12*j*

Legegintzazko ekimen honek nabarmen eragiten dio partzialki indargabetzen duen 7/1990 Legearen erregulazioari; izan ere, bakar-bakarrik eusten dio indarrean ondare dokumentalari eta artxibo zerbitzuei buruzko erregulazioari; azken horiek erregulazio zehatz baten menpe daude. Halaber, 7/1990 Legearen indarreko garapen dekretuei dagokienez (horien erregulazioa indarrean dago), ezin da atzeman ageriko kontraesanik; hala ere, horiek legezko arautegiari lotuta geratzen dira, menpeko arauzko hierarkiaren printzipioa aplikatu behar baitzaie.

Kultur ondarearen kontzepzio berria gero eta anbizio handikoagoa da helburuei dagokienez eta, gainera, babes eremuak zabaltzen ditu; izan ere, lehenago gehienbat ondare higiezina babesten zen, baina orain ondasunen hiru tipologia handiak azaltzen dira, zeren, ondare higigarri eta higiezinarekin batera, ondare immateriala ere ageri baita; azken ondare mota hori aurreko arautegian oso labur aipatzen zen ondare etnologikoaren barruan. Arautegia Hezkuntzarako, Zientziarako eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundeak (UNESCO) zehaztutako irizpideetatik abiatzen da; UNECOk berak aipatzen du ondare immaterialak nazioarteko aintzatespen zabala lortu duela eta haren zainketa nazioarteko lankidetzaren lehentasunetariko bat da.

I. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK (1. ARTIKULUTIK 11.ERA)

Lehendabiziko kapituluak legearen xedapen orokorrak jasotzen ditu. Aurreko arautegiaren aplikazioan ikusitako gabeziatariko bat honakoa izan zen: babestutako ondasunen izaera argi eta garbi islatuko zuten kategorien falta, ondasun higigarri eta higiezinaren artean bereizten ez zuelako, eta hiru kategoria orokor besterik aipatzen ez zirelako: monumentuak, monumentu multzoak eta kultur espazioak. Ondare arkeologikoari eta paleontologikoari buruzko kategorien gabeziari ondare higigarriaren kategorien gabezia gehitu behar zaio eta horien babesa nekez sartu ahal izan ditu 7/1990 Legeak ezarritako kategorien barruan.

Ondare higigarri eta higiezinaz denaz bezainbatean, kategoria berriak sartzen dira, kalifikatutzat hartzen diren ondarearen izaerari dagozkionak, edo Euskal Kultur Ondarearen Inbentario Orokorrean inskribatzen dira, betiere errealitate berriekin bat etorriz. Ondasun higiezinaren kategoria propioak txertatzea proposatzen da eta ondasun higigarrien kategorizazio bat, haien ezaugarriari eta loturari jarraituz.

Ondare higieziari dagokienez, ondorengo kategoria hauek sartzen dira: monumentuak, monumentu multzoak, eremu arkeologikoak, eremu paleontologikoak, kultur intereseko lorategiak, kultur ibilbideak, kultur paisaiak eta interes etnografikoko eremuak. Beste alde batetik, babestutako ondasun higigarria ondorengo kategoria hauen barruan sartzen da: loturik ez dauden ondasun higigarriak, lotutako ondasun higigarriak, loturik ez dauden ondasunen bildumak eta lotutako ondasunen bildumak.

Haren izaera dela eta, ondare immateriala honela definitzen da: “euskal kulturaren zatitzat hartzen diren erabilerak, adierazpideak, ezagutzak eta teknikak, bai eta haiei datxekien tresnak, objektuak, artefaktuak eta kultur eremuak ere”. Ondare immaterial hau ez da kategorien arabera sailkatzen.

Azpitarratzekoa da kultur paisaiaren figura; izan ere, giza ingurunearen funtsezko elementutzat hartzen da, haren kultur eta natur ondare erkidearen dibertsitatearen adierazpidetzat eta haren identitatearen oinarritzat. Gauzak horrela, paisaia kultur arloko politiketan sartzeko konpromisoa ere hartzen

da, besteak beste.

II. KAPITULUA: BABES PROZEDURA ETA ARAUBIDE ERKIDEA ETA ZEHATZA (12. ARTIKULUTIK 45. ARTIKULURA)

Hasteko eta behin, euskal kultur intereseko ondasunak kalifikatzeko eta Euskal Kultur Ondarearen Inbentario Orokorrean sartzeko diren espedienteei buruzko prozedura erkidea arautzen da. Halaber, prozedura zehaztapenak arautzen dira, bai kalifikatutako kultur ondasunei dagokienez bai inbentarioan sartutako ondasunei dagokienez.

15/12*j*

Kalifikatutako ondasunen adierazpen orokorraren prozeduraren erregulazio berria ezartzen da, aurreko arautegiaren lege erreserba desagerraraziz eta Eusko Jaurlaritzak, Kultur Sailburuak proposatuta, ondasunen kategoria oso, mota edo genero batentzat egindako ondasun adierazpena ahalbidetuz.

Era berean, babes araubide erkidea ezartzen da, babestutako ondasun guztiei aplikatzeko modukoa, horien izaera eta babes maila edozein direlarik ere.

Ondasunak babesteko prozedura izapideak aldarazten dira, bai kalifikatuenak bai inbentarioan sartutakoenak, eta babeserako legezko araubidearen berehalako eta behin-behineko aplikazioa ezartzen da, bai eta lizentzien etadura ere, babes espedienteari ekiten zaion unetik bertatik, bai inbentarioan sartutako ondasunei begira bai kalifikatutakoei begira. Kapitulu honetan, aldi berean, ondasun higiezinei, ondasun higagarriei eta ondare immaterialari aplikagarri zaizkien babes arauak jasotzen dira, ondare arkeologikoari buruzko sekzioa beren-beregi ezarriz.

Aurreko legean araututako ondasun babestuen aurreko adierazpena berrikusi da, azaroaren 10eko 306/1998 Dekretuaren bitartez egindako arau garapenak zehaztutako jarraibideen arabera; horrela, kalifikatutako eta inbentarioan sartutako kultur ondasunen aurreko egoeraren adierazpena berrikusi da, bai eta ondasunok eraisteko ebazpenaren alde aurretiko eta ondorengo jarduketak ere. Era berean, aurreko kasuak egokituko dira, aurreko legezko kasu edo egoera bakarra ezarriz, betiere arautegi urbanistikoan finkatutako aurreko adierazpena

erreferentziatzen haturik; izan ere, horrek men egiten die konponketa kostuek higiezina birgaitzeko balioaren %60tik gorakoak diren eta laguntzarik ez duten kasuei.

Proiektuak indarreko legearen erregulazioa berrikusi, sistematizatu eta garatzen du, ondare arkeologikoari dagokionez eta ondare etnografikoari buruzko kapitulua ezabatuz; haren erregulazioa legezko babes araubidearen barruan txertatzen da. Berrikuntza gisa, oinarritzko esku-hartze irizpide batzuk ezartzen zaizkie ondasun kategoriatu desberdinei, kalifikatutako ondasunei eta inbentarioan sartutako ondasunei aplikagarri zaizkienak bereiziz.

III. KAPITULUA: KULTUR ONDASUNEN BABES MAILAK (46. ARTIKULUTIK 56.ERA)

15/12j

Kapitulu honek kultur ondasunen babes mailen erregulazio zehatza ezartzen du, aurreko arautegiaren babes maileri eutsita. Kalifikatutako ondasunei men egiten dien lehenengo sekzioak bere barnean biltzen ditu ondasun horien babes araubide zehatzari dagozkion zehaztapenak.

Bigarrenez, inbentarioan sartutako ondasunen erregulazioa ezartzen da, babes maila honetarako zehaztapenak eginez horiek babesteko araubideari dagokionez.

Hautazko izaeraz ezartzen da inbentarioan sartutako ondasunen babes araubide zehatza ezartzeko aukera, kalifikatutako ondasunen adierazpenean manuzkoa dena. Beste alde batetik, berariaz aipatzen da ingurunearen erregulazioa; horren mugaketa bakar-bakarrik egingo da babestutako ondasunen babes egokia eta balioespina bermatzeko beharrezkoa denean.

IV. KAPITULUA: SUSTAPEN NEURRIAK (57. ARTIKULUTIK 60.ERA)

Aurreko legerian ezarritako legezko irizpideei eutsiz, sustapen neurriak jasotzen dira, bai aholkularitza teknikoari eta laguntzak emateko moduari dagokienez, bai zerga onurei eta zorren konpentsazioari dagokienez, bai kultur ondarrerako zuzendutako obra publikoen ehuneko bateko aurrekontu erreserbari dagokienez.

V. KAPITULUA: ZIGOR ARAUBIDEA (61. ARTIKULUTIK 72.ERA)

Azkenik, VI. kapituluak zigor araubidearen erregulazioa ezartzen du eta arau-hausteei eta zigorrei buruzko titulua berregiten du, arau-haustetzat hartzen diren jarduketak deskribatzeko eta horiei dagozkien zigorrak zehazteko eskema tradizionalari jarraituz. Gauzak horrela, indarreko legearen xedapenak aldarazten dira, horretan arau-hausteen deskripzioa artikuluetara joz egiten baitzen. Halaber, zigorren zenbatekoak igo dira eta eurotan adierazi dira, gaurkotzeko asmoz.

15/12j

III.- GOGOETAK

I. ARAUAREN BALORAZIOA

I.1. Sarrera

Euskal Autonomia Erkidegoko Kultur Ondareari buruzko Legearen aurreproiektua aurkeztu zaigu, horren inguruko gogoeta egiteko. Aurreproiektuak kultur ondarearen arautegia egokitu nahi du kultur ondasunen eta arauzko eskakizunen gaur egungo egoerara; izan ere, esperientzia luzea egon da Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea argitara eman eta indarrean sartu zenez geroztik.

Aldarrikatu zenetik igarotako denbora tartean egiaztatu ahal izan da euskal kultur ondareari arauzko tresna oso eta sistematizatuagoa emateko premia; beharrian hori ez zaio bakarrik zuzentzen kultur ondasunen babes egokiari, baizik eta kultur ondarea sustatzeko, hedatzeko eta balioesteko politiken bultzadari; horrenbestez, batzorde honek modu positiboan baloratzen du ekimena.

I.2. Ondare immateriala

Oso garrantzitsu irizten diogu, kultur ondarearen kontzepzio berriaren arabera, arautegi berriak hiru ondasun tipologia nagusi ezartzeari; izan ere, ondare higigarri eta higiezinarekin batera, ondare immateriala ere

jasotzen da. Indarreko legean azken hori oso labur aipatzen zen ondare etnologikoaren barruan.

Aurreproiektuaren azalpen memorian ondare immaterial hori biltzen duten elementu gisa honakoak aipatzen dira: “... *euskal kulturaren zatitzat hartzen diren erabilerak, adierazpideak, ezagutzak eta teknikak, bai eta haiei datxetzien tresnak, objektuak, artefaktuak eta kultur eremuak ere.*”

Nolanahi ere den, harrigarri samarra da lege aurreproiektuaren 6. artikulua, kultur intereseko ondasun higiezinak (6.2) eta higigarriak (6.3.) aipatzen dituenean, kategoriak nahiko zehaztea, baina, ondasun immaterialei men egitean (6.4.), kategoriarik ez finkatzea, betiere azalpen memorian aipatutakoak ahazturik eta bazter utzirik.

15/12j

Memorian aipatzen denez, “*indarreko legerian atzemandako gabeziatariko bat izan da babestutako ondasunen izaera zehatz islatuko duten kategorien hutsunea*”; gauzak horrela, gure ustetan, hori ez dator bat ondasun immaterialen kategorizazio faltarekin, nahiz eta haien erregulazioa arautegiaren berrikuntzetariko bat izan.

Eta are inkongruenteagoa da ondare immaterialaren kategorizazioaren hutsune hori, ondare hori babesteko araubideari buruzko 32. artikulua 5. idatz zatiak aipatzen dituenean euskal kultur ondare immateriala adierazten deneko lau eremu bereziak (“*kulturaren ahozko tradizioak eta adierazpideak, horren barnean hizkuntza sartuz, kultur ondare immaterialaren ibilgailu bezala*”); egin-eginean ere horiek izan litezke 6. artikuluan zehazteke dauden kategoriak.

Beste alde batetik, harrigarria da euskal ondare immaterialaren eremuan aipamenik batere ez egitea euskararen inguruan. Gogoeta antropologiko eta kulturaletatik harago, eremu juridiko hertsian, Euskararen Erabileraren Normalizazioari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 Legeak euskara Euskal Herriko Kultur Ondarearen funtsezko zatitzat hartzen du, euskal herritarren berezko hizkuntza delako eta gure erkidegoaren identitatearen ezaugarrikerik agerikoena eta objektiboena.

Ez da aipatzen legearen aurreproiektuaren 32. artikuluan; eta horrek ikusezin bihurtzen du, baina, gure iritziz, azpimarratu, babestu eta sustatu beharreko ondasuna da.

Laburbilduz, lege aurreproiektu honek, kultur ondare immateriala arautzean, euskara aipatu eta azpimarratu behar izango luke, bai azalpen zatian, bai euskal kultur ondare immaterialaren definizioan (4. artikulua) bai babes araubide zehatza finkatzean (32. artikulua).

Azkenik, deigarria da oso kultur ondasunen babes mailei buruzko III. kapituluaren aipamenik ez egotea esku-hartze irizpideen inguruan eta ondasun immaterialen babes araubidearen inguruan; izan ere, 48. eta 49. artikuluetan ondasun higiezin eta higigarri kalifikatuen gaineko esku-hartze irizpideak zehatz finkatzen dira, bai eta 54 eta 55. artikuluetan ondasun higiezinen eta ondasun inbentariatuen gainekoak ere.

15/12*j*

II. HOBEKUNTZA TEKNIKOARI BURUZKO GOGOETAK

Arauaren edukiari buruz egindako balorazioari gehitu nahi dizkiogu hobekuntza teknikoari buruzko hurrengo gogoetak:

Zalantzarik egon beharko ez balu ere, informatzen ari garen lege aurreproiektuaren izenburutik abiatuta, “kultur ondareari” egindako testu aipamen guztiak “euskal kultur ondareari” buruzkoak direla ulertu beharra dago; hala eta guztiz ere, arauaren artikuluetan zehar aski tratamendu alderraia ikusten dugu, zalantzak sorraraz ditzakeena; izan ere, pentsa liteke “kultur ondare” termino orokorra aipatzen denean arau honen aplikazio gai eta eremua gainditzen ari dela, betiere 1. eta 2. artikuluetan jasotako terminoei dagokienez.

Nolanahi ere den, batzorde honen ustetan, ikuspuntu horri jarraituz, aurreproiektuaren idazkera hobetzeko modukoa da, koherenteagoa izan dadin:

- Artikulu desberdinen izenburuetan, horietariko batzuetan “euskal” agertzen ez delako (3. artikulua) eta beste batzuetan bai (4, 11 eta 15. artikulua).
- Artikulu batzuen izenburuaren eta edukiaren artean. Adibidez, 6. artikulua izenburu orokorra honako hau da: kultur ondasunen kategoriak, baina haren garapenean, 1. puntuan honako zehaztapena sartzen da: “euskal kultur intereseko ondasunak”. Hala eta guztiz ere, 2 eta 3. puntuek oro har men egiten diete “kultur intereseko” ondasun higiezin eta higigarriei. Antzeko zerbait gertatzen da 9 eta 12. artikuluetan, besteak beste.
- Artikuluetan eduki desberdinetan: zigor araubideari buruzko V. kapituluaren, 62. artikuluan, oro har men egiten zaie “*kultur ondarearen arloko*” arau-hausteei. Hala eta guztiz ere, 63, 64 eta 65. artikuluetan “*euskal kultur ondarearen arloko*” arau-haustea aipatzen dira
- “*Euskal Autonomia Erkidegoa*”ri egindako aipamena. Deigarria da ondare arkeologiko eta paleontologikoari buruzko 33. artikuluan ikustea “*Euskal Autonomia Erkidegoko ondare arkeologikoa*” adierazpidea erabiltzen dela, horrek dakarren administrazio konnotazioarekin¹.

15/12*i*

Laburbilduz, testua hobetzeko asmoz, honako aholku hauek eman behar dira:

- “*Euskal Kultur Ondarea*” adierazpidea sartzeko artikuluen izenburuetan behinik behin.
- Koherenteak izanik, adierazpide bera agertu beharko litzateke artikuluen edukien garapenean ere.
- 33. artikuluan “*Euskal Autonomia Erkidegoko ondare arkeologikoa*”ren ordez “*euskal ondare arkeologikoa*” erabiltzea.

¹ Hala eta guztiz ere, jarduera arkeologiko eta paleontologikoen baimenari buruzko 35. artikuluan bai ematen du logikoa dela Euskal Autonomia Erkidegoa aipatzea; izan ere, “EAEko lurralde eremuan” berariaz ematen diren administrazio baimenak aipatzen dira.

Edozein kasutan ere, testuan adierazpide horiek erabiltzea akatsa ez balitz, arrazoi logikoa izango balu eta legegilearen beren beregiko borondatea balitz, azalpen arrazoitua eman behar izango litzateke behinik behin.

IV.- ONDORIOA

Euskadiko EGABk egokitzen du *Euskal Autonomia Erkidegoko Kultur Ondareari buruzko Legearen aurreproiektua*, betiere kontsulta organo honek egindako gogoetak kontuan haturik.

15/12j

Bilbon, 2012ko uztailaren 18an

Vº Bº El Presidente
Juan María Otaegui Murua

El Secretario General
Francisco José Huidobro Burgos



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

©Argitalpena: EEGAB

Gran Vía 81, 7. solairua
48011 Bilbao. Bizkaia
www.cesvasco.es

Maketazioa: EEGAB

Inprenta: Gestingraf

Lege Gordailua: BI-1392-12